

# LAUGARREN UNITATEA

## 1.4. Atzerriko immigrazioa

A) Immigrazioaren ezaugarriak:

- Bilakaera: 1996-2010 urte bitartean gorakada bat eman zuen eta 2010. urtetik 2012. urtera mantentzen da eta handik aurrera beherakada bat ematen da
- Atzerritarren egoera:
  - Nazionalizatuak, zuzenbide osoko espainol bihurtuak
  - Legezko immigranteak, egoitza-baimena lortu eta jatorriko nortasuna mantentzen dute
  - Legez kanpokoak, egoitza-baimenik ez
- Immigrazio-erakarpenaren arrazoiak:
  - Espainiaren aldetik: Eskulan beharra, immigrazioa erakartzeko neurriak (2000-05 erregularizazioak eta 2001 familia-biltzeak), Espainia Afrikatik hurbil egotea, Latinoamerikarekiko lotura historiko eta kulturalak, mediterraneo inguruko klima-baldintza ona.
  - Atzerriko immigranteen aldetik: Arrazoi ekonomikoak eta arrazoi politikoak
- Immigranteen jatorria:
  - Bilakaera: Beherakada bat egon da politikariek neurriak hartu dituztelako eta geroz eta zailagoa da Europara etortzea haientzat.
  - Nongoak dira immigrante gehienak? Europakoak dira, immigrazioa nahiko konstantea delarik. Bigarrena, Afrika da eta hirugarrenik, Hego Amerika.
- Immigranteen jomuga: Katalunia, Madril, Andaluzia, Valentziako Erkidegoa, Balearrak eta Kanariak
- Immigranteen profila:
  - Europako Erkidegoko immigranteak:
    - Bizi-maila ertaina eta handia
    - Erretirodunak
    - Kokapena: Mediterraneo ingurua, Balearrak eta Kanariak
    - Emigrazio arrazoia: klima-baldintza onak, lan egiteko eta negozioarako aukerak
  - Europako Erkidegotik kanpoko immigranteak:
    - Gazteak
    - Emigrazio arrazoia: ekonomikoa eta politikoa
    - Prestakuntza txikiko lanak egin (zerbitzuetan, nekazaritzan, meatzaritzan eta arrantzan)

- Immigrazioaren arrazoiak:
  - 1993-2007 arteko garapen ekonomikoa
  - Errenta per capita handiagoa
  - Kokapen geografikoa
  - Lotura kultural linguistikoa
  - Klima egokia-erakargarria

## B) ESPAINIAKO IMMIGRAZIO POLITIKA

- Immigrazio-politikaren oinarriak:
  - Europar Batasuneko asilo eta immigrazio politikak
    - Asiloen eta bisatuen sistema komuna
    - Estatu kideen arteko lankidetzaren sustatzea immigrazio klandestinoaren aurka
  - Atzerritarrei buruzko legeak
    - Immigrazioaren inguruko alderdiak arautu
  - Espainiako immigrazio-politikoaren neurriak
    - Herrialde igorleekin lankidetzaren sustatzea
    - Migrazio-fluxuak antolatzea: immigrante kopuruak zehaztu
    - Immigranten integrazioa bultzatzea
    - Immigrazio klandestinoaren aurkako borroka

### 1.5. Euskal Herriko biztanleria

- XX hasieratik XXI hasierara Euskal Herriko biztanle kopurua ia hirukoiztu
- Arrazoiak: Joera demografikoak; denboraren eta espazioaren bilakaera

## A) BIZTANLERIAREN BANAKETA

- Euskal Herriko biztanleriaren dentsitatea handia (1,5 bizt./km<sup>2</sup>)
  - Euskal Autonomia Erkidegoan 301,12 bizt./km<sup>2</sup>
- Populazio dentsitate handienak: kostaldean eta hiriburuen inguruetan
- Populazio dentsitate txikiak: Baserri edo nekazaritza inguruan
- Probintzia bakoitzaren biztanleriaren egoera:
  - Bizkaia:
    - 1.148.608 biztanle (2017)
    - EAE-ko biztanleen erdia baino gehiago (%53,76)
    - Biztanle dentsitatea 515,4 bizt./km<sup>2</sup>-koa
    - Dentsitate handienak: Bilbo Handia, Portugalete, Sestao, Getxo, Basauri
    - Bizkaiko gainerako inguruetan ez jende asko bizi, Durangaldean eta Gernika-Bermeon ezik
  - Gipuzkoa

- 719282 biztanle (2011)
  - EAE-ko biztanleriaren %32,40
  - Biztanle dentsitatea 366 bizt/km<sup>2</sup>koa
  - Dentsitaterik handienak Donostialdean (1076 bizt./km<sup>2</sup>)
  - Beste lekuetan biztanleriaren banaketa orekatuagoa: 100 bizt/km<sup>2</sup>tik gorakoa
- Araba
  - 328415 biztanle (2017)
  - EAEko biztanleriaren %13,84
  - Biztanle dentsitatea 99,9 bizt/km<sup>2</sup>koa
  - Arabako biztanleriren %75,8-a Gasteiz hirian
  - Okupaziorik txikiak Errioxa Arabarrean, Gorbeia inguruan eta Arabako haranetan eta mendialdean
- Nafarroa
  - 643234 biztanle (2017)
  - Biztanle dentsitatea 62,3 bizt/km<sup>2</sup>koa
  - Kontraste handia mendebalde eta ekialde artean: Mendebaldean pilaketa handia, ekialdean ez
  - Biztanle gehienak Iruñean eta Erriberan bildu; dentsitaterik txikiak Pirinioetako haranean
- Euskal Herri kontinentalean
  - Hazkunde demografikoa hiri-periferietara bideratu, hiri nagusiak beteta daudelarik
  - Barrualdea jendez husten ari da
- Biztanleriaren banaketaren aldaketak:
  - Biztanle gehienak 30000 eta 100000 biztanle bitarteko nukleotan bildu
  - 5000 biztanletik beherako udalerrietan biztanleriak gora egiten du hirietako deskontzentrazio-prozesuaren eraginez
  - Bilbon eta Donostian, pilaketa-arazo handien ondorioz, biztanleak alboko udalerrietara mugitu

## **B)EAE-KO BIZTANLEEN BEREZKO MUGIMENDUA**

(Hiru etapa demografiko)

- ERREGIMEN DEMOGRAFIKO ZAHARRA
  - XIX. mendean hasierara arte iraun zuen
  - Berezko hazkundea txikia
    - Jaiotza tasa handiak (gazte ezkonduak eta kontrol-sistema eza)
    - Heriotza tasa handiak (nekazaritza-krisiak, gerrak, izurriak eta medikuntza eta osasun-egoera eskasak)
  - 1787-1900 artean biztanleen kopurua bikoiztu

- **TRANTSIZIO DEMOGRAFIKOA**
  - 1900 eta 1975 bitartean eman zen
  - Berezko hazkundea handia
    - Industrializazio prozesua sendotu eta garatu zen
    - Jaiotzak behera egin zuen (beti %20)
      - Gerra zibilaren eragina (jaiotzen beherakada)
    - Jaiotzen gorakada
      - Babyboom fenomenoa (1960-1970eko hamarkadaren hasiera)
    - Heriotza-tasak behera egin
      - 1950etik aurrera, bai heriotza-tasa orokorrari erreparatuz, bai haurren heriotza-tasari erreparatuz
      - Bizi-maila, higiene-egoera eta osasun-egoera hobetu.
  
- **ERREGIMEN DEMOGRAFIKO MODERNOA**
  - 1975tik aurrera
  - Krisiak industria gogor jo eta krisi demografikoa gertatu
    - Goranzko joera gelditu
    - Jaiotza tasak behera egin
      - Etorkinak zahartu
      - Gizartea modernizatu
  - Heriotza-tasa egonkortu
    - Zifrak txikiak
  - Berezko hazkundeak behera egin
  - Gaur egun:
    - Jaiotza-tasa txikia (%o 09,8)
    - Heriotza-tasa txikia da (%o 09,1)
    - Berezko hazkunde txikia (%o 00,7)

## **C)EUSKAL HERRIKO MIGRAZIO MUGIMENDUAK**

(Hiru etapa)

- **XIX-TIK XX. MENDEAREN BIGARREN HAMARKADARA ARTE**
  - Euskal Herria emigrazio-eskualdea
  - Arrazoi nagusiak:
    - Lurraren jabetzaren egitura eta herentzia bidezko eskualdaketa
  - Ozeanoz gaindiko emigrazioa: Amerika Latinoa jomuga nagusia
  - Euskal biztanleriak gora, etorkinak iritsi
  
- **XX. MENDEAREN BIGARREN HAMARKADATIK 1975ERA ARTE**
  - Euskal Herria immigrazio-eskualde bihurtu, batez ere 1950 eta 1975
  - Arrazoiak:
    - Industrializazio goiztiarra eta desarrollismoaren gorakada

- Industria-guneek euskal nekazariak eta Espainiako eskualde batzuetako biztanleak erakarri
  - Hasieran hurbileko inguruetako biztanleak (Burgos iparraldea) eta geroago beste batzuetakoak (Gaztela-Leon, Extremadura eta Galizia)
  - Etorkinak, lehenengo, Gipuzkoako eta Bizkaiko kostaldeko industria-guneetan ezarri (Donostialdean eta Bilbo Handian), 1970etik aurrera Araban (Arabako lautada) eta Nafarroan
  - Etorकिनen erdiak lau udalerrietan ezarri (Bilbo, Barakaldo, Donostia eta Gasteiz)
- Immigrazio handi horren ondorioak:
  - Euskal Herriko biztanleriak gora egitea eta gaztetzea
  - Euskal Herri kontinentalean etorkinak Lapurdiko kostaldean ezarri (hirugarren adinekoak)
- 1975EKO KRISI EKONOMIKOTIK AURRERA
  - Euskal industriak behera egitean immigrazioak ere
    - Migrazio-saldoa negatibo bihurtu
    - Aspaldiko immigranteak jatorriko lekuetara itzuli
    - Beherakada Hego Euskal Herriko kostaldeko lurraldeetan gartatu, Araban eta Nafarroan saldoak positiboak izaten jarraitu
    - Kostaldeko saldo negatiboak 1991-tik behera egiten hasi eta 2000n migrazio-saldoa positiboak berriro
      - Igoera hanidenak Bizkaian eta Gipuzkoan

## **D)IMMIGRAZIOA EUSKAL HERRIAN**

- 1990etik aurrera beste herrialdeetako biztanleak etorri
  - Hasieran kopuru txiki
  - Lana: nekazaritza
  - Kokapena: Araba eta Nafarroa
- 2000tik immigrazioa probintzia guztietara zabaldu
  - Jatorria: Maroko, Errumania, Kolonbia, Ekuador, Bolivia, Portugal, Argelia, Brasil